

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, uztailaren 14koa. Onestea Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa, zerga arloan informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari buruzkoa, komunikatu eta jakinarazi behar diren mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez**

Zerga Neurriei buruzko abenduaren 13ko 22/2019 Foru Arauak Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatu zuen, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren transposizioan xedapen gehigarri berri bat sartzeko. Zuzentaru hori fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa da, eta 77/799/EEE Zuzentaru indargabetzen du.

Xedapen horrek, aipatutako zuzentarauaren arabera, 2020ko uztailaren 1etik aurrera izan behar ditu ondorioak.

Europar Batasuneko Kontseiluak premiaz aldatu du 2011/16/EB Zuzentaruak, COVID-19 pandemiaren ondorioz zerga informazioa aurkezteko eta trukatzeko epe jakin batzuk geroratzeko premia larriari aurre egiteko.

Aldaketa horretan, epeen aukerako geroratzeko bat ezartzen da, pandemiaren ondorioz. Araugintzako dekretu honek, gaikuntza hori baliatuz, epe horiek luzatzen ditu.

Gainera, aipatutako xedapen gehigarria ahalik eta lasterren aldatu behar da, bertan xedatutakoa aldatzeko jakinarazitako eta Europako Batzordearen Erabaki batek berariaz baimendutako araubide fiskalei eta sekretu profesionalaren betebeharrari dagokienez; aldaketa horiek, beraz, araugintza dekretu honetan sartzen dira.

Ikusi da horri buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak arauaren eraginari buruz egin duen txosten laburtua.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zerga Neurriei buruzko abenduaren 13ko 22/2019 Foru Arauaren xedapen iragankor bakarra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Bakarra. 2020ko uztailaren 1a baino lehen egin diren aitortu beharreko mugez gaindiko mekanismoak aitortzeko betebeharren araubide iragankorra.

Foru Arau Orokorren hogeita laugarren xedapenak aipatzen dituen mugaz gaindiko mekanismoak 2021eko otsailaren 28a baino lehen aitortu beharko dira, baldin eta aitortzeko betebeharra 2018ko ekainaren 25aren eta 2020ko ekainaren 30aren artean sortu bada, erregelamenduz ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzea.

Aldatu egiten dira hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 1. eta 2. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

“1. Betebehar horren ondorioetarako bitartekari edo zergapeko interesdun diren pertsonak edo erakundeak, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko eta 77/799/EEE

Zuzentaraua indargabetzen duen 2011ko otsailaren 15eko Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3. artikuluko 21. eta 22. apartatuten arabera, informazio hau eman beharko diote Zerga Administrazioari foru arau honen 29., 29 bis eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan:

a) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.18 artikuluan definitutako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa, baldin eta mekanismo horietan esku hartzen edo parte hartzen badute zuzentarau horren IV. eranskinean zehaztutako zeinu bereizgarriren bat gertatzen denean.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.24 artikuluan aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarrien eguneratzearen informazioa.

c) Aurreko a) eta b) paragrafoetan aipatzen diren zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoen erabilerari buruzko informazioa.

Informatzeko betebeharrak horren ondorioetarako, ez dira zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo aitortu beharrekotzat hartuko jakinarazitako eta Europako Batzordearen erabaki bateg berariaz baimendutako zerga araubideetan oinarritutako akordio, negozio juridiko, eskema edo mugaz gaindiko eragiketak.

2. Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluan 5. apartatuan aipatzen den sekretu profesionalaren betebeharragatik informatzeko betebeharratik salbuetsita egongo dira Zuzentarau horren arabera bitartekari direnak, garatzen duten jardura edozein dela ere, baldin eta aholkuak izan badituzte Zuzentaruaren definitutako mugaz gaindiko mekanismoetako bat diseinatzeari, merkaturatzeari, antolatzeari, gauzatzeko eskura jartzeari edo gauzatzea kudeatzeari buruz, mekanismo hori aplikatu beharreko araudira egokitzen den ebaluatze xede bakarrarekin eta hura ezartzen ahalegindu eta bide eman gabe. Lanbide sekretupean dagoen bitartekaria hori egitetik salbuetsiko da zergapeko interesdunak modu frogagarrian jakinarazitako baimen bidez.”

#### XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Zergei buruzko Foru Arau Orokorren hogeita laugarren xedapenaren 1. apartatuan ezarritako informazioa aurkezteko epeak erregelamendu bidez ezarriko dira, bertan ezartzen den bezala.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, informazioaren jakinarazpena egitera lotuta dagoen mugaz gaindiko mekanismo bat exekutatzeko prest edo prest badago, edo exekuzioaren lehen fasea 2020ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean egin bada, edo bitartekariak, zuzenean edo beste pertsona batzuen bitartez, laguntza edo aholkularitza ematen badute 2020ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da informazioa jakinarazteko betebeharra duten mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa aurkezteko hogeita hamar eguneko epea, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko Fiskalitatearen arloko Administrazio Lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluko 1. eta 7. paragrafoetan aipatzen dena.

Merkaturatu daitezkeen mekanismoen kasuan, bitartekariak aurkeztuko du, 2021eko apirilaren 30a baino lehen, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoaren, 2. paragrafoko 8 bis ter artikuluan aipatzen den hiruhilekoko lehen aitopena.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2020ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera baliozkotu edo erreboka dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 14a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**